



XEDEA
(JARDUERA MOTA)
Foro antzerkia.



IRAUPENA
50'



MATERIALAK
Paper jarraitua.
Errotuladoreak.



HELBURUA
Behar-beharrezko ondasunak zein diren aztertzea, horietako batzuen faltak pobrezia- edo kalteberatasun-egoeran dauden haurren eta nerabeen bizitza nola baldintzatzen duen aztertzea eta konponbideak proposatzea.

“ERAIKITZEN ARI DIREN ESZENAK”

GARAPENA

1º. Talde osoaren artean, bizi-maila egokia izateko eskubideari buruzko [Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren](#) (CDN) 27. artikulua irakurtzen da.

- ➔ CDNren 27. artikulua. “1. Estatu alderdiek aitortzen dute haur orok bere garapen fisiko, mental, espiritual, moral eta sozialerako bizi-maila egokia izateko eskubidea duela”. “3. Estatu alderdiek, baldintza nazionalekin eta beren bitartekoen arabera, neurri egokiak hartuko dituzte gurasoei eta haurrak erantzule dituen beste pertsona batzuei eskubide hori gauzatzeko laguntzeko, eta, beharrezkoa denean, laguntza materiala eta laguntza-programak emango dituzte, bereziki nutrizioari, jantziei eta etxebizitzari dagokienez”.

[CDNren bertsio egokituaren](#) esteka 13 eta 18 urte bitarteko neska-mutilentzat. ([pdf bertsioa](#)).

- ➔ Behar-beharrezko ondasunak: elikagaiak, janzkera, etxebizitza eta energia-hornidurak.

2º. Gehienez 8 pertsonako taldeak egiten dira, eta eguneroko bizitzako eszena bat irudikatzea proposatzen zaie hasiera honekin:

Eszenaren hasiera:

- ➔ Ama edo aita bat bere familiari deitzen gosaltzera joan daitezen...
- ➔ Bi neska oporrak prestatzen...
- ➔ Bi mutil institutuko lan bat egiten bizi diren lekuan...
- ➔ Neska bat eta mutil bat urtebetetzea nola ospatu pentsatzen...

Zenbat denbora dagoen kontuan hartuta, nahi adina eszena egin daitezke.

Boluntario bati eskatzen zaio eszenari ekiteko. Ez da beharrezkoa elkarrizketak dituen gidoirik, bat-batean edo mimos hitz egin daiteke.

3º. Taldeko gainerako kideak pixkanaka sartzeko dira eszenan, etenik gabe, eta beste rol batzuk hartzen dituzte, hala nola amarena, aitarena, hezitzailearena, beste neska edo mutil batena, eta abar, baina, betiere, lehen premiako ondasunen gaineko pobrezia- edo kalteberatasun-egoera agerian uzten duen antzezpen bat ekarri.

4º. Antzezpena amaitzen denean, dela rol bat antzeztu nahi izan duten taldekide guztiak atera direlako, dela denbora amaitzen delako, eztabaida bat hasiko da guztien artean, eszenan atera diren pobrezia- edo kalteberatasun-elementu, -adierazpen eta -egoerekin lotutako egoerei buruz hausnartzeko, eta oharrak ageriko horma-irudi batean idatziko dira.

5º. Eztabaidaren/solasaldiaren ondoren, horma-irudian idatzitako ohar bakoitza ikusten da, eta konpontzeko edo hobetzeko proposamenak egiten dira.

Oharra: garrantzitsua da proposamenak desioak ez izatea, baizik eta proposamen zehatzak, hau da, janari gehiago izatea edo jende guztiak berogailua ordaintzeko dirua izatea, baizik eta elikagaiak gehieneko prezioa izatea, edo errentaren arabera ordaintzea, edo berogailuak pobrezia-egoeran edo kalteberatasun-egoeran dauden familia guztientzat ordainketa-bonu bat izatea.

13 - 17
URTE



Behar-beharrezko
ondasunen

“ERAIKITZEN ARI DIREN ESZENAK”

HAUSNARKETARAKO GALDERAK

Zer ikusi duzu / zer dakizu (behaketa)

- Haur edo nerabe baten oinarrizko zer ondasun mota ezin da falta bere erabateko garapenerako?
- Zer ezaugarri ditu behar-beharrezko ondasunak eskuratzea zailago duten haur eta nerabeen inguruneak?

Zer pentsatzen duzu (iritzia)

- Zuen ustez, zergatik daude oinarrizko premia materialak beteta ez dituzten haur eta nerabeak?
- Zuen ustez, nola eragiten dio behar-beharrezko ondasunik ez izateak haurren eta nerabeen garapenari?

Zer proposatzen duzu (proposamenak))

- Zuen ustez, nori egokituko litzaioke haur eta nerabe guztiak beren oinarrizko beharrezko materialak aseta edukitzeaz arduratzea?
- Nola lor liteke haur eta nerabe guztiak aukera berdinetan premia biziko ondasunak eskuratzeko aukera izatea?

JARDUERARAKO IRADOKIZUNAK

Bigarren antzeppen bat egin daiteke, hobekuntza-proposamenak jasoko dituen, aldaketa horrekin eszena aldatuko litzatekeen ikusteko.

ONDORIOAK IRAULTZEKO FORMULARIORAKO ESTEKA

13 - 17
URTE



Behar-
beharrezko
ondasunen